



*galemys s.l.*

ACTIVIDADES MEDIOAMBIENTALES □ INGURUMEN EKINTZAK

## ASKARI ETA HAMAIKETAKO OSASUNTSU ETA JASANGARRIAK

**HELBURUA:** Hamaiketako eta askarietarako erabiltzen diren aluminiozko bilgarriaren ordeztu beste aukera batzuk daudela ezagutzera eman eta behin eta berriz erabil daitezkeen beste bilgarri hauen erabileraren abantailak erakutsi: hondakinak murrizten dira eta epe luzera



merkeago ateratzen dira.

Hondakinen murrizketan denon parte-hartzea beharrezkoa dela modu ikusgarri batean azaldu.

Hamaiketako eta askari osasuntsuak egitearen gomendioa azpimarratu, osasuna eta ingurumena zaintzeko eta guzti honetarako, ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako haurren eta gurasoen partaidetza eskatu.

### KANPAINAREN LABURPENA:

- Ikasle eta gurasoek meriendan sortutako hondakinak gutxitzen ikasteko antzerki-sketcha.



- Boc'n Roll ogitartekoentzat bilgarri berrerabilgarria opari ikasleentzat





*galemys s.l.*

ACTIVIDADES MEDIOAMBIENTALES INGURUMEN EKINTZAK

**IRAUPENA:** 30 minutu inguru.

**EPEA:** 2013–2014 ikasturtea.

**TOKIA:** Ikastetxe sarreran, patioan edo ikastetxe ondoko parkean.

**HARTZAILEAK:** Lehen Hezkuntzako ikasle, guraso edo familiartekoak.

**KANPAINA:** Haurrak ikastetxetik ateratzen diren ordua aprobetxatu, ikastetxeko sarreran, patioan edo parkean aktore batzuk antzerki-sketch bat egiteko guraso eta hurrei. Antzerkitxo horretan,



aktoreak ume eta gurasoen artean sartuko dira, umore ukituarekin meriendari buruzko gaiekin “zirikatuz”, eta askariaren kontua osasuntsuago eta jasangarriago nola izan daitezkeen aholkuak emanez. Horrela, zakarrontzian amaitzen duten plastiko eta aluminiozko bilgarrien ordeztu erabili daitezkeen beste produktuen abantailak azpimarratuko dizkiete haur eta helduei, eta baita opil eta litxarkerien ordeztu etxean prestatutako askaria, ogitartekoa edo fruta osasuntsuagoak direla.

Horrez gain, hurrei gaiarekin lotutako jolas dibertigarri batzuk proposatuko zaizkie han bertan egiteko, eta musika giroan erakarriko dituzte ikastetxetik irteten doazen ikasleak, edo umeen bila hurbiltzen diren guraso edo familiartekoak.

Gainera, ikasleei ogitartekoentzat bilgarri berrerabilgarri bat oparituko zaie (Boc'n roll delakoa).

**FINANTZIAZIO EKONOMIKOA:** Kanpaina hau, Gipuzkoako Diputazioak hondakinen prebentziorako ekimenentzat atera dituen diru laguntzen barnean sar daiteke AMPAren izenean. Interesa baduzue, gu (GALEMYS S.L) arduratuko ginatete zuek diru laguntza hori eskatzeko aurkeztu beharreko programa garatzeaz.



**PROPOSAMENAK:** Kanpaina hau Guraso Elkarte batzuk ikasturtean zehar ikasleei egiten diezuen oparia egiteko aprobetxa dezakezue, eta ikasleei Boc'n roll bana oparitu.

